

# Leire

*El Monasterio de Leire es el de más larga historia de cuantos se han conocido entre nosotros. Es posible que sus raíces arranquen desde fechas anteriores al siglo VIII, y su existencia la tenemos documentada en 848. La actual comunidad benedictina fue restaurada en 1945, y desde 1961 el Monasterio tiene rango de Abadía. La historia de Leire se sitúa en el corazón de la historia civil y eclesiástica de Navarra.*

Duen historia luze eta esangarriagatik, behin eta berriz aipatu dugu Leire orrialde hauetan (iazko urtarrilean, adibidez, Nafarroako monasterioez ari ginela). Nafarroako iragana aztertzean, historialariek sarritan gogorarazi digute, Monasterio honen eragina, erlijiotasunean edo Iruñeko diozesiaren garapenean ez ezik Nafarroako Erregeekin izandako harremanetan eta han-hemen sakabanatutako ondare zabala erakustean.

## **Hasierako arrakasta eta ondoko garapena**

Leiren bi monasterio egon dira, gizonetzkoena bata, emakumezkoena bestea (San Kristobal, orain Irunberrin dagoena). Hemen, monjeen Jondoni Salbatoreren Monasterioaz ditugun albisteak bilduko ditut, eta bertako fraideek ezagutu dituzten gorabeherak.

Salbatore Monasterioa paperetako data jakin batetik hona ezagutzen dugu (848), eta lehen albiste hartatik bertatik Monasterio eredugarri bezala ageri zaigu Leire: fraidearte ederra zuen, liburutegi ongi hornitua. Lehendik zekarren bere garapenean, Penintsulako beneditar aurreko monasterio-tradizioak eta Frantzia aldeko erreforma karolingiarrak, biek batera izan zuten beren eragina segur aski.

Aurpegi berria eta erakarmen bizkorra eman zizkion gertakari bat daukagu IX. mendean ber-


tan: Nunilo eta Alodia martirien erlikiak Leirera ekarri eta bertan gorde zituzten orduan. Santu haiekiko jaiera edo debozioa izango da laster Leireri egingo zitzaizkion opari eta dohainen arrazoietakoa bat.

Antso III.a Nafarroako Erregearekin (1004-1035) dator Leireren lehen loraldi handia: Izan ere, Nafarroako Erreinuak bizitza eliztarra erakundetzean, Leireri pisu berezia aitortzen diote historialariek, bertako Abadea Iruñeko Gotzain ere izan zen garaian, esate baterako (halako lau kasu daukagu XI. mendean).

Hedatuz zihoan Nafarroako Erreinuak Leireko Abadeak Erregeen aholkulari bilakatu ziren, eta hauek sarritan erakutsi zuten Leirekiko zituzten onginahia eta atxikimendua, Monasterioa erret hilobien panteoi bihurtzeraino. Hamarkada haietan bertan jaso ziren eraikin berriak, eliza eta kriptak.

XI. mendearen azken aldera, Leire ere Eliza osoko erreformen bideetara bildu zen, eta San Benitoren Erregela hartu zuen bere bizi-arautzat, Mendebalde osoan ezarri nahi zen arautegi bera. Horretan Erraimun Abadea izan zen erreforma gidaria (1083-1121).

Errege, familia handiki eta herritarrek maitatutako Monasterioek ondare handiak eskuratu ohi zituzten, eta horixe gertatu zen Leirerekin



ere. Inguru hurbilean ez ezik urrunagoko eskualde eta herrietan ere lurrak, etxaldeak eta hainbat ondasun bildu zituen Monasterioak. L.J. Fortún-ek mapa egoki batean erakutsi digu, XIII. mendeko Leireren ondasunak nola zeuden banatuta, Nafarroan noski, baina baita Aragoi eta Errioxan ere, Piriniotik Zaragozara, Huescatik Araba eta Bureba-ra. Horiei esker handitu ahal izan zen bertako eliza ere (1098).

### Historia luzeko aldarreak (1237-2000)

Ondasunak zaintzen ziren bitartean (ez beti arrakasta berarekin, eta bai ondaretik hainbat atal galduz ere XVI. mendera arte), monjeen bizimodu erlijiosoak gorabeherarik franko bizi izan zuen. Alde batetik, XII.lean Monasterioko gobernua egonkortasuna segurtatzea ez zen erraza izan, Iruñeko Gotzainek agindu nahi baitzuten bertan, monjeek beregainak izan nahi zuten bitartean.

XIII. mendea bereziki korapilatsua gertatu zen, Monasterio barruko fraidearteko egoeratik. Monje beneditar klunitarrak zeuden Leiren, baina garaiko egoera eskasa ikusita monje zistertarrak deitzea erabaki zuen bertako Abadeak, Domingo Mendabiakok (1237): honek zioenez, garai bateko 80 laguneko monje-taldea oso eroria zegoen (10 lagun bakarrik). Erreforma aitzina eramatea liskartsua gertatu zen, ordea, eta monjeen arteko auzia eta indarkeria ere ez zen amaitu 1306a arte, zistertarrak behin betirako Monasterioaz jabetu arte.

XVI. mendearen bigarren erdi-aldian gora egin zuen Monasterioak, eta 1634an Leire Aragoiko zistertarren Kongregazioan sartu zen, nahiz eta Cluny-ko Abadearen mende egon 1672a arte.

Leireko zistertarren Komunitate honek 25/30 laguneko fraideartea izan zuen Aro Modernoan, hamarkada bakoitzean 4/5 fraidegai sartzen zirela. Horrela iraun zuen, Esklaustrazioa arte, baina orduan, 1836 otsailaren 16an, utzi behar izan zuten azken monjeek Leire, Legeak horretara behartuta.

Monje-bizierari dagokionez, kontenplaria zen fraidearte hau, eta eguneko orduak, gutxi gorabehera, honela banatzen zituen: 7/8 ordu lotarako; otoitza zen eguneko ordutegiaren ardatza (otoitz pertsonala, eta Liturgiako Orduena batez ere). Historialariak gogorarazten digunez, Liturgiaren honek Leireko ordutegi arautuan desoreka nabaria sortu zuen, buru-lanaren eta esku-lanaren kaltetan.

Monasterio honek emaitza ederrak eman zituen zenbait eremutan: balio historiko handiko eskuizkribuak utzi zizkigun, eta artearen historia bizirik dago oraindik Monasterioko eraikinetan, erromanikotik hasita.

Zaila izan da XIX. mendeko hondamendiari aurre egitea, Leire monjerik gabe geratu baitzen 1836an; ondorioz, inguruko herrietako eraikuntzetarako lapurtu ziren bertako harlanduak (1836-1863). Nafarroako Monumentuen Batzordearen ardurapean jarri zen Monasterioa (1868), obratarako aurrekontu eta guzti (1888). Gerraostean, 1945etik aurrera, egin dira azken konponketa eta egokitzapenak, eta 1954tik hona guztia zaintzaile dira berriro beneditarrak. 1979az geroztik, Leire Monasterio erabat beregaina da.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharrak: 610273580*